

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Lemoako Udala****Kotxepin Kultur Etxea Lemoako kultur etxearen funtzionamendu-Araudiaren behin betiko onarpena.**

2019ko abenduaren 4ko Ohiko Osoko Bilkurak «Kotxepin Kultur Etxea» Lemoako Kultur Etxearen funtzionamendu-araudia behin-behin onartzeko erabakia hartu zuen.

Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 188tik 190era bitarteko artikuluetan, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49., 70.2 eta 111. artikuluetan ezarritakoa betetze aldera, espediente hori jendaurrean jarri zen 30 egunez, zegokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Horrenbestez, onarpena behin betikoa da, eta jarraian argitaratzen dugu Araudiaren testu osoa, indarrean sar dadin eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen) 70.2 artikuluan ezarritakoa bete dadin.

Lemoan, 2020ko otsailaren 12an.—Alkatea, Saioa Elejabarrieta Amorrortu

**LEMOAKO KOTXEPIN KULTUR ETXEAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIA****1. artikulua. — Xedea**

Araudi honen xedea Lemoako Kultur Etxean eskaintzen diren zerbitzuen barne-erregimena eta funtzionamendua arautzea da. Bertan jarduera soziokulturalak egingo dira, udalerrian dauden beharrak asetzeko.

2. artikulua. — Onuradunak

Edozein pertsona fisiko edo juridikok Kultur Etxean eskaintzen diren zerbitzuetan parte hartu dezake, baldin eta legezko kausaren batean sartuta ez badago, edo lokale-tara sartzearagotzen duen zigorra bete behar badu.

Kultur Etxeko lokal guztiak duten helbururako erabili beharko dira eta bertan dauden mota guztietako elementuak eta instalazioak zaindu beharko dira. Lokalen bat xedatutako helburua ez den beste zerbaitetarako erabiliko bada, Kultur Etxeko arduradunaren berriazko baimena beharrezkoa izango da. Kultur Etxeko lokaletan ezin da janaririk edo edaririk sartu, berriaz baimendu ezean.

3. artikulua. — Ordutegia

Kultur Etxearen ordutegia honako hau izango da: 10:30etik 12:30ak arte, eta 16:30etik 19:30ak arte, astelehenetik ostiralera. Udako ordutegia aurretik nahikoa denboraz jakinaraziko da. Abuztuan itxita egongo da.

Kultur jarduerak ordutegi propioa izango dute.

4. artikulua. — Espazio komunak

Espazio komunak (sarrera, atondoa eta korridoreak) igartzeko lekuak dira, eta, beraz, erabiltzaileak horietan ahalik eta denbora gutxien egoten saiatu beharko dira.

5. artikulua. — Plaza

Edozein pertsona joan daiteke antolatu diren ikuskizunetara. Ikuskizunetarako sarrerak beharrezkoak direnean, pertsona bakoitzak aurreikusitako aukeren bat jarraituz erosi beharko dituen sarrerarekin sartu beharko du lokalera. Udal-ordenantzan arautuko dira prezioak eta kasu bakoitzean aplikatuko diren deskontuak.

6. artikulua. — Liburutegia**1. Xedapen Orokorrak:**

Liburutegiaren liburu-funtsa katalogatuta dago, katalogazio-arauak erabiliz, eta SHU-ren arabera; horrek funtserako sarbidea eta kontsulta errazten du.

Liburuak kontsultatzeko, liburutegiko arduradunari eskatuko zaizkio.

Liburutegia ez da taldeko lanak egiteko lekua, ezta adin nagusikoekin batera etxeko lanak egiteko ere.

2. Mailegu-zerbitzua:

Mailegu-zerbitzua gauzatzeko, honako araudi hau jarraitu behar da:

Liburutegiak doan emandako txartela beharrezkoa da. Galdu ondoren berritzen bada, udal-ordenantzetan xedatutako zenbatekoa ordaindu beharko da.

Mailegatzen den materiala andeatzen edo galtzen bada, berria erosi beharko da.

Honako hau hartu daiteke maileguan:

— 3 liburu gehienez 21 eguneko epean, beste 15 egunez luzatu daitekeena.

— 3 DVD gehienez 21 eguneko epean. - 2 CD gehienez 3 eguneko epean.

Araua betetzen ez bada, ezin izango da mailegu-zerbitzua erabili hurrengo hiru hilabetetan.

Erreferentzien saila (entziklopediak, hiztegiak...), liburu zaharrak, tokiko saila eta egunkariak ez dira mailegatuko, eta liburutegian edo horretarako berriaz dauden lekue-tan bakarrik erabiliko dira, kontsulta-material moduan.



Kontsulta bukatzean, erabilitako aleak liburutegiko arduradunari itzuli beharko zaizkio.

3. Haurren saila:

Sail honetako informazioaren erabilera erosoagoa eta errazagoa izan dadin, liburuak lau ataletan banatu dira, gomendatutako adinaren arabera.

- 0 eta 3 urte bitartekoak.
- 4 eta 5 urte bitartekoak.
- 6 eta 8 urte bitartekoak.
- 9 eta 12 urte bitartekoak.
- 12 eta 14 urte bitartekoak.

Kategoria horiek liburu bakoitzak duen etiketaren arabera bereizten dira.

8 urte edo gutxiagoko umeak pertsona arduradun batekin bakarrik joan daitezke, lokalean dauden bitartean beren zainketaz eta mailegu-zerbitzuan erabilitako materialaz arduratuko dena.

7. artikulua.— *KZgunea*

KZgunearen araudia:

<http://www.kzgunea.eus/reglamento-kzgunea>

8. artikulua.— *Ikasteko gela (gela independentea)*

Helburua toki autonomoa izatea da, udalerriko jendeari ikasteko gela bat eskaintzeko. Gela Lemoan errolatuta dauden 16 urtetik gorakoek erabili dezakete. Orduetgia 08:00etatik 23:00ak arte izango da, urteko egun guztietan.

Eraikinerako sarbidea erabat independentea izango da, eta sarrera Udalak emandako giltzen bidez kontrolatuko da. Giltzak pertsonalak eta besterenezinak izango dira, eta iraungi egingo dira.

Giltzen kostua, berritzeagatik edo galtzeagatik, udal-ordenantzetan zehaztutakoa izango da.

9. artikulua.— *Elkarteak*

Udal-elkarteek eraikineko bilera-gelak erabili ditzakete, eta ordutegia elkarte bakoitzarekin egingo den hitzarmenean zehaztuko da, elkarteen eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen instalazio publikoen erabilera arautzeko Lemoako Udalaren ordenantzaren esparruan.

Elkarte bakoitzak izendatzen duen pertsona izango da bilera-geletara sartzeko giltza izango duena, eta bera arduratuko da haren esleipenaz eta erabileraz.

10. artikulua.— *Bestelakoak*

Alkatetza Dekretu baten bidez, arautegi honetan jasotzen den edozein artikulua aldatu daiteke.

